



KIROL-AISIALDIKO MAHAIA

2024ko irailaren 18a

GAI-ZERREDA:

1. Ongietorria. Sektorearen egungo egoeraren azterketa.
2. Abian diren proiektuak:
 - Getxo Bono 2024
 - 2024ko kontrataziorako laguntzak
 - Getxo: Helmuga Turistiko Adimenduna. Kode Etikoa eta Enpresa turistiko adimenduna.
 - Karbono-azterketaren kalkulua: programa pilotua.
 - “Getxoz gozatzeko planak 2025” kanpaina.
 - “Bizkaiko Flyscha” proiektua.
 - DEAPIE interpretazio-seinaleen proiektua.
 - “Surfaren Herrien Sarea” proiektuaren aurrerapenak.
 - Itsas Hub eta Sormen Hub.
 - Beste gai batzuk: enpresentzako dirulaguntzak, lehiakortasun programak, enpresetarako aholkularitza-zerbitzuak.
3. Mahaian hutsik geratu den beste ordezkaritza bat.
4. Ideia eta proposamen berriak.



BERTARATUAK: (% 30)

DEITUTAKOAK	BERTARATUAK	EZ BERTARATUAK	
		Arrazoa emanda	Arrazoirik eman gabe
Sektoreko ordezkaria eta Polaris Nautika Eskolako kudeatzailea	Héctor García	BAJA	
2 Millas	David Benavente		X
Galea Nautika	Javier Gutiérrez		X
Freedom Boat Club	Igor Asensio	X	
Marmitako Sailing	Alejandro Zuanzola	X	
Sailing & Wine	Natxo Taibo		X
Ballestrinque Nautika	Alejandro Bracho		X
Arriluze Nautika	Jose Manuel Zubeldia		X
As de Guía	Javier Peña		X
Sotavento Nautika Eskola	Alfonso Hernández		X
Jose Luis Ugarte Bela Eskola	Eduardo Santamarina		X
Pakea Bela Eskola	Gonzalo Terceño		X
El Bote Tours	Juan Olabarria		X
Getxo Watersports Jet	Iñigo Martínez		X
Planeta Jets	Olga Zabala		X
Getxoport	Jose Miguel Larrinaga	BAJA	
La Mar de Bien	Jose Muro		X
Acero Surf Eskola	Eneko Acero		X
La Salbaje Surf Eskola	César González		X
Barrika Surf Kanp	Nagore Nicolas		X
La Kantera Skate Eskola	Borja		X
Arrecife	Jose Manuel Rodriguez		X
Dive Tarpoon	Julen Ibinaga		X
Loizaga Prest	Imanol Loizaga		X
Geotxiki	Aintzane Goffard	X	
Ekobideak	Imanol López	X	
Ekobideak	Bárbara Casas	X	
Euskadi Trek	Marisa Lago	X	
Fangaloka Style	Iker Amondarain	X	
Iparapente	Aritz Irurizaga		X
Bizkaia Parapentea	Wiso		X

Deskonecta	Begoña Oca		X
Hegohaize Foil	Ibai Egurrola		X
Getxo Water Bikers	Nagore		X
Inguru	Alvaro Arteta	X	
Getxoko Udala Ekonomia Sustapenaren Arloa	Ane Osoro	X	
	Juan Jesús Blanco	X	
	Rubén Justicia	X	

EDUKIAK:

1. Bertaratutakoei agurra eta sektorearen egungo egoeraren azterketa.

Ane Osorok, Ekonomia Sustapenaren Arloko teknikariak, bilerara gerturatutakoei ongietorria egin die. Jarraian, talde-eztabaida txiki bati ekin zaio udako denboraldia nolakoa izan den eta sektorearen aurreikuspenak zeintzuk diren azaltzeko. Ildo horretan, bilerara etorritakoei honako hau adierazi dute:

Oro har, bertaratuek udarekin eta beroarekin lotutako urtaro-zerbitzuak eskaintzen dituzte. Beraz, eguraldiak baldintzatzen du denboraldia. Gainera, uda honek aire zabaleko planen erreserbei lagundu ez diela eta horietako asko bertan behera utzi direla aipatu dute. Hala ere, sektorea pixkanaka suspertzeko itxaropena dute.

2. Informazioa hurrengo gaiei buruz:

a) Getxo Bono 2024

Rubén Justiciak GETXO BONO kanpainaren funtzionamendua azaldu du, eta adierazi du GETXO BONO kanpainara atxikitzeko epea irailaren 11tik 22ra bitartean dagoela zabalik. Gainera, gogorarazi die martxoko lehen aldian parte hartu zuten negozioek ez dutela berriro izena eman behar (azken 6 hilabeteetan ez bada titulartasuna edo forma juridikoa aldatu beren negozioan).

Era berean, azaldu du aisialdi-sektoreko 6 establezimendu atxiki zaizkiola kanpainari lehen aldian, eta, zehazki, 77 bonu trukatu direla sektore horretan.

Amaitzeko, esan du kanpainak lehen aldian izan duen iraupena luzatu egin dela (astebete iraun du), aurreko urteetan baino askoz gehiago.

[Getxo Bonori buruzko informazio gehiago.](#)

b) 2024ko kontrataziorako laguntzak

Ane Osorok azaldu du urrian zabalduko dela besteren konturako langileak dituzten autonomoak kontratatuzko laguntzen deialdi berriaren epea, baldin eta langile horiek



lanaldi partzialeko edo osoko lan-kontratu mugagabeak egiten badituzte, kontratuok 2023ko uztailaren 1etik 2024ko ekainaren 30era bitartean hasitakoak badira eta lantokia eta jarduera ekonomikoa Getxon badute.

Bestalde, Rubén Justiciak jakinarazi du laguntzak nahikoa arin agortzen direla, eta, beraz, Merkataritza, eskaera egiterakoan, bizkor ibil daitezela eskatu die, laguntzen emakida eskaeraren sarrera-hurrenkeraren arabera ematen baita, betiere eskabidea osorik beteta badago eta zuzena bada.

Azkenik, Juan Jesús Blancok, Ekonomia Sustapenaren Arloko arduradunak, laguntza horiek bazkideen eta inguruko establezimenduen artean zabaltzera gogatu ditu mahaikideak. Ekonomia Sustapenak informazio guztia bidaliko du deialdia argitaratzen denean.

Informazio gehiago

c) Getxo: helmuga turistikoa adimendunerantz aurrera egiten

Ane Osorok azaldu du adierazi du Getxori Helmuga Turistikoa Adimendunaren (HTA) ziurtagiria aitortu diotela. Helmuga Turistikoa Adimenduna (HTA) programak helmugan lehiakortasuna eta bertako biztanleen bizi-kalitatea hobetzea du helburu, gobernantza, berrikuntza, teknologiaren, jasangarritasunaren eta irisgarritasunaren bitartez.

Ane Osorok esan du 2023ko abenduan BasqueTourren diagnostikoa jaso zutela eta mahaian lanean ari direla bost ardatz nagusi hauetan hobekuntzak aplikatzeko:

- Gobernantza
- Berrikuntza
- Teknologia
- Jasangarritasuna
- Irisgarritasuna

Azaldu da, 2024ko abuztuaren 30ean, Getxok atera duen emaitza orokorra % 54,8koa dela, batez bestekoa baino handiagoa, kontuan hartuta helmugan batez bestekoa % 40,5koa dela.

d) Kode etikoa: “Turismo Etikoa”

Ane Osorok esan du *Turismo Etikoa* gizarte- eta ingurumen-erantzukizuneko programa dela, Basquetourrek sustatua, NBERen GJHak eta Munduko Turismo Antolakundearen munduko turismoaren kode etikoa ezkontzeko. Jasangarritasunaren 8 printzipiotan oinarritzen da, eta betetzen direla ziurtatzeko memoria bat aurkeztu behar da.

Ane Osorok adierazi duenez, alde aurretik enpresak eta Turismo Bulegoa programa honi lotuta egotea besterik ez zuten eskatzen. Hala ere, aurten erabaki dute udalek ere



parte hartu behar direla programa horren ziurtagirian. Bestetik, adierazi du Basque Tourrekin eta kalitate-ziurtagiri hori lortzeko motibatuta dauden 13 enpresarekin batera proposamen bat lantzen ari direla.

Enpresaren ikuspegitik, Juan Jesús Blancok jakinarazi du programa-mota hori interesgarria izan daitekeela enpresentzat, abantailak eta onurak eskaintzen baititu dena antolatuta izateko helburuz.

Informazio gehiago: [Getxo – Ekonomia Sustapena – Programak - Turismoaren kode etikoa](#)

e) Karbono-aztarnaren kalkulua

Ane Osorok esan du Udalak proiektu pilotu bat abiarazi duela udalerrian ingurumenean duen eragina neurtzeko, eta programan horretan 5 turismo-ostatuk (hotelak, ostatuak eta apartamentu turistikoak) parte hartu nahi izan dutela.

Jarraian, Juan Jesús Blancok azaldu du programa horren lehenengo fasean, ostatu bakoitzean egiten den jarduerari eta energia-kontsumoari buruzko informazioa biltzen dela, eta datu horiek guztiak, geroago, IHOBek (Ingurumen Jarduketarako Euskal Sozietate Publikoa) darabilen karbono-aztarnaren kalkulagailu batean irakurtzen dira. Azkenik, esan du emaitzak jasotzen dituen txostena egingo dela eta karbono-aztarna murrizteko ekintza-plana prestatuko dela.

Ane Osorok adierazi du, denboraren poderioz, sektoreko enpresa gehiagotara zabalduko dela.

Informazio gehiago: [Turismo-ostatueterako karbono-aztarna kalkulatzeko programa](#)

f) “Getxoz gozatzeko planak 2025” kanpaina

Ane Osoro turismo-enpresa eta -jardueretako teknikariak azaldu duenez, “Getxoz gozatzeko planak 2024” katalogoa liburu-formatuan eta goitibeherako formatuan badutela Ereagako Turismo Bulegoan, eta bertan mota guztietako liburuxkak eska ditzaketela. 2024ko katalogoa erakutsi du eta bertaratutakoen artean banatu du. Gainera, esan du Getxok FITUR azokan parte hartu ohi duela plan horiek eramanda eta Flyscharen proiektua ere bai.

Ane Osorok adierazi du urrian hasiko dela 2025eko katalogoaren edizio berriari atxikitzeke epea. Aurten, berrmatutako jarduera bakoitzaren aurrekontuaren % 80raino finantzatuko da, gehienez ere, 7.000 Irteerak euro. Horren helburua da Getxon turismo-eskaintza sortzea, berehala kontsumitzeko, erreserba egiteko beharrik gabe eta gutxieneko talde bat egon beharrik gabe.



Alejandro Zuanzola Marmitako Sailing enpresako arduradunak esan du sozietatearen egoitza aldatu dutela, eta galdetu du ea dokumenturen bat aurkeztu behar duten planen liburuxkan aldaketa hori jasota gera dadin. Juan Jesús Blancok, Getxoko Ekonomia Sustapenaren Arloko zuzendariak, esan du zerga-egoitza berriaren datuak beti Udalaren establezimenduen datu-basean jasota egon behar direla, liburuxka berria argitaratzen denerako Udalak informazio eguneratua izan dezan. Beraz, Juan Jesusek eskatu die harrera-lekuan datuak eguneratzeko mahaiaren saioa amaitzen denean.

Informazio gehiago: [Getxo - Ekonomia Sustapena - Programak - Getxoz gozatzeke planak 2024](#)

g) “Bizkaiko Flyscha” proiektua

Ane Osorok esan du Turismo Arloa eta Uribe Kosta eskurik esku lan egiten ari direla “Bizkaiko Flyscha” proiektuaren hedapenean eta sustapenean. Aurten, jarduerak eguneratu dituzte web orrian eta mapan.

Ane Osorok adierazi du sustapena egin dela Bilboko eta Gasteizko tranbietan, eta aurreratu du urte amaieran argitaratuko dela maparen goitibeherako bertsio arinagoa eta eramangarriagoa.

Informazio gehiago hemen: [Bizkaiko Flyscha](#).

h) DEAPIE interpretazio-seinaleen proiektua; aurrerapenak

DEAPIE programaren eta 2024an antolatuko diren ibilbide berrien berri eman da: Elvira Larrazabal, Juana Bizcarra. DEAPIE ibilbideen liburuxka inprimatuak banatu zaizkie bertaratuei.

DEAPIE ibilbide guztiak ikusi [Getxo - ZER IKUSI - deapie](#)

i) Surfaren Herrien Sarea

Ane Osorok adierazi du Getxo 2022an sartu zela “Surf Herrien Sarea” estatu-programaren barruan. Programa hori EBko Next Generation Funtsek diruz laguntzen dute. Proiektu hori Kantauri aldeko udalerriekin, Ferrol, Carballo eta Valdoviño (Galizia) mankomunitatearekin eta Castrillon (Asturias) eta Ribamontan herrieekin batera egiten da. Gaineratu du helburuak hauek direla: surfari balioa ematea, eremu horietako jarduera turistikoak hobetzea eta jasangarritasuna sustatzea. Eta Bizkaian, Getxo “surfaren sorleku” nagusia izanik, ezin zen atzean geratu.

Berrikuntza gisa, Ane Osorok esan du markaren irudia aukeratu dela, eta Ferrolgo mankomunitatea lanean ari dela webgune korporatiboa merkaturatzeko, surfarekin



lotutako baliabide turistikoaren inbentarioa egiten ari dela, eta produktu bat sortuko dela familian eta dibulgazio-ekintza batzuk egingo direla ikasleekin eta herritarrekin.

Asmoa da bisita surfarengatik egiten duen turistari beste kirol-, turismo- eta ostatu-jarduera batzuk eskaintzea.

Informazio gehiago hemen: [Getxo - Prentsa bulegoa - Prentsa oharrak - Prentsa oharrak - Xehetasuna](#)

j) Getxo Itsas Hub eta Getxo Sormen Hub

Aurretik azaldu den bezala, Ane Osorok esan du Ekonomia Sustapenaren Arloak bi "hub" direlakoak sustatzen direla, hau da, Getxoko ekintzaileentzako bi lantoki (Sormen Hub eta Itsas Hub); bestalde, adierazi du Itsas Hubean espazioak esleitzeko deialdiak irekita jarraitzen duela.

Juan Jesús Blancok, Ekonomia Sustapenaren Arloko arduradunak, dei egin die bertaratutakoei ItsasHub ezagut dezaten, jarduera kolaboratzaileen artean gauzatzeko guneetan interesa izan dezaketelako, eta bilerak egiteko, elkarrekin lan egiteko edo ekitaldi bereziren bat antolatzeke erabil daitekeela esan du.

Informazio gehiago hemen: [Getxo - Ekonomia Sustapena - Hub-ak eta lan espazioak - Hub-ak eta lanerako espazioak](#)

k) Beste batzuk: Zerbitzu erregularrak dinamizatzeko laguntzak. Turismo-sektoreko berariazko aholkularitza- eta prestakuntza-programak.

DINAMIZAZIO EKONOMIKORAKO LAGUNTZAK

Ane Osorok adierazi du laguntzen ebazpena datorren asterako aurreikusita dagoela, eta gogorarazi du laguntza horiek jaso ahal izateko nahitaez "Getxoz gozatzeko planak" programari atxikita egon behar dela.

TURISMO-SEKTOREKO AHOALKULARITZA- ETA PRESTAKUNTZA-PROGRAMAK

Azkenik, Ane Osorok gogorarazi die sektoreak aholkularitza-zerbitzua duela eskura, lehiakortasuna hobetzeko aholkularitza jasotze aldera: Giza baliabideak, diruzaintza, fiskalitatea eta zerbitzuen hedapena eta komunikazioa.

3. Mahaian hutsik geratu den ordezkartza

Rubén Justiciak jakinarazi duenez, 2024ko uztaillean egindako Kontraste Mahaian, Hectorrek, Kirol Aisialdirako Mahaiko ordezkari ohiak, mahaiko ordezkari izateari uzteko asmoa azaldu zuen. Beraz, adierazi da *Kirol-aisialdiko arloak ez duela ordezkariarik*.

Bestalde, Juan Jesús Blancok azpimarratu du mahai honek hutsik dagoen ordezkaritza bat bete behar duela, sektore hori ordezkari gabe baitago gaur egun:

- *Tokiko ostatu-sektore osoaren ordezkaritza.*
- *Enpresen Kontsulta Foroan ordezkaritza betetzeko:* foro horretan, sektoreetako ordezkariak lehentasuna ematen diete mahai sektorialetatik helarazitako proposamenei.
- *Kontraste Mahai Politikoan ordezkaritza izateko:* foro horretan, hainbat sektoreetako ordezkariak beren beharrak eta proposamenak azaltzen dizkiete udal-ordezkaritza duten talde politikoetako ordezkariak.

Igor Asensio, Freedom Boat Club izeneko Kirol Portuan instalatutako klub nautiko berriaren arduraduna, mahaiko ordezkari izateko aurkeztu du bere burua.

Bozketa egin ondoren, Igor Asensio hautatu da, aho batez, Aisialdiko Mahaiko ordezkari berri gisa.

4. Ideia eta proposamen berriak.

EuskadiTrek-eko Marisa Lagok azaldu duenez, ibilbideen eta txangoen salmentak balioa galdu du; izan ere, sektore publikoak diruz laguntzen ditu gehiegi eta, gainera, jarduerok oparitzeko joera dute, eta kudeaketa-mota horrek kalte egiten die kirol-aisialdiaren sektoreko enpresei. Eta hori guztia kaltegarria da sektorekoentzat. Ane Osorok esan du Planen katalogoaren helburua tokiko balioa eskaintzea dela eta jarduerok ez direla doakoak; hasiera batean, “doakoak” izan daitekeela “erakargarritasun-estrategia” gisa, baina gero, merezi duten balio turistikoa ematea dela asmoa.

Bestalde, Juan Jesús Blancok esan du, hoteletako gaualdien kopurua eta Turismo Bulegoan egiten diren kontsulten kopurua ezagutzen den arren, zaila dela Getxoko turismoaren eragin ekonomikoa zehatz-mehatz neurtzea. Gainera, esan duenez, *“Getxora hurbiltzen den turista-profilari eta herrian egiten duen ibilbideari buruzko informazio gehiago falta zaigu”*.

Bestalde, EuskadiTrek-eko Marisa Lagok Euskadiko turismo aktiboko, nautiko eta abenturako eta ekoturismoko enpresen elkartean (AKTIBA) parte hartzeko gonbita egin die bertaratutakoei, Bizkaiko gero eta turismo-enpresa gehiago batzen ari baitira, eta Getxok ordezkaritza izan beharko lukeela uste du.

Geobiziko Aintzane Goffardek esan du TicketBai ezartzea zaila dela, eta Bizkaiko Foru Aldundiak, “aise” jarri beharrean, trabak jartzen dizkiela enpresei kudeaketa informatiko hori egiteko orduan, eta, gainera, ezarpen-egutegia finkatuta presionatzen duela. Ane Osoro turismo-enpresen teknikariak esan du Udalak prestakuntza-



ikastaroak antolatzen dituela urtean zehar Getxoko enpresentzat, Batuz/TicketBai ezartzeko.

Marmitako Sailing-eko Alejandro Zuanzolak galdetu du ea liburuxka sortzean Kirol Portuan kokaturiko enpresak kontuan hartuko dituzten, oso kezkatuta baitaude Kirol Portuaren esleipenaren etorkizunarekin, eta gaineratu du oso egoera etsigarria dela, esparru horretako merkataritza- eta turismo-jarduera bertan behera utzita eta gainbeheran dagoela hautematen da, eta argudiatu du Abra GetxoPorteko prestakuntza-postuak ez duela baliozko informaziorik ematen negozioek erabakiak har ditzaten, eta egoera “auzibidean” amaituko ote den beldur direla. Ane Osorok gogorarazi du Kirol Portuaren kudeaketa eta estrategia enpresa emakidadunarena dela, eta bertan dagoen enpresaren bat programari atxikita badago eta beste lokal batera lekualdatzen bada, kontuan hartuko dela.

EuskadiTrek-eko Marisa Lagok galdetu du ea Getxora iristen den publiko horren itsas bidaien kudeaketa hobetu daitekeen. Ane Osorok jakinarazi du aurten Turismo Bulegoak pertsona bat jarri duela Getxoko jardueri buruzko informazioa eskaintzeko, eta Portuko Agintaritzak “Shuttle” bat antolatu duela, hiru tokitan: Telletxe, Zugatzarte eta Bizkaia Zubian. Gainera, azaldu du bi motatako gurutzaontziko turistak daudela: batetik, jatorriz ezer kontratatu gabe datozenak, normalean desgaitasunen bat edo mugikortasun txikia duten “adinekoak” direnak, Getxon geratzea axola ez zaienak, eta turismoa egiteko gogoz datozenak, gehienak jatorrizko eskaintza itxia kontratatuta datozenak. Azkenik, adierazi du “helmugan egoteko denbora” ere mugatua dela, eta horrek murriztu egiten duela haientzat helmugan txango asko egin ahal izatea.

Fangalokako Iker Amondarainek esan du Ereaga hondartzako aurtengo kirol-jardueraren esleipendun berriak direla eta bainulariei eragiten ez dien nabigazio-kanal bereizirik ez izateko arazoa dutela; ildo horretan, adierazi du bi banderola eta buia-ilara bat ezar litezkeela, hondartzako espazioa itsasoan kirol-jarduera egin nahi dutenei mugatzeko. Gainera, azaldu du Ereagako hondartza turista eta bainulari gehien dituen Getxoko hondartzetako bat dela, eta, beraz, udan kirol-aisia sustatzeko baliabideak eman beharko litzaizkiokeela. Ane Osorok esan du Getxo Kirolak erakundera eramango duela Bizkaiko Foru Aldundiarekin koordinatzeko eskaera, hark baitu gune hori kudeatzeko ahalmena, eta 2025eko udako denboraldiari begira kontuan hartu ahal izateko.

Azkenik, Juan Jesus Blancok lan-mahaietan parte hartzeko garrantzia azpimarratu du, bozgorailu gisa balio baitute geroko balorazio politiko batean erabiltzeko eta egungo egoera hobetu ahal izateko, eta adibide gisa jarri du Udala dagoeneko aztertzen ari den ekintzetako bat: Getxoko hotelen seinaleztapena ibilgailuetan datozen bisitarientzat.



5. Hurrengo urratsak:

- Enpresen Kontsulta Foroa urriaren 30ean biltzeko deitzea. Bertan, sektoreko ordezkariak mahai sektorialetan jasotzen diren proposamenak lehenetsiko dituzte.

KIROL-AISIALDIKO MAHAIAREN ERABAKIAK (2024/09/18):

ERABAKIAK/EKINTZAK	ARDURADUNA	DATA
1. Bilerako aktaren zirriborroa bidaltzea.	Zerbitzuko teknikariak	Bileratik aurrera
2. Getxo Kirolak erakundeari eta Bizkaiko Foru Aldundiari helaraztea Ereagako hondartzan nabigatzeko kanal mugatua jartzeko beharra dagoela.	Zerbitzuko teknikariak	Bileratik aurrera
3. Abra GetxoPort informazio-postuak eskaintzen duen informazioa baino argibide gehiago eskatu dituzte.	Zerbitzuko teknikariak	Bileratik aurrera
4. Gobernu-taldeari helaraztea herritarrentzako kirol-jardueren kostua ezin dela ehuneko ehunean diruz lagundu, Getxoko eskaintza turistikoari balioa emateko helburuz.	Zerbitzuko teknikariak	Kontraste-mahaitik aurrera